

Azurmendi eta Gandiaga aurrez aurre Arantzazun

Hamar urte zituela joan zen Joxe Arantzazura (1951), eta hiru urte eman zituen bertako kolegioan. Hemeretzirekin itzuli zen berriro, Teologia ikasketak egitera (1960). Jakin Taldean sartu zen berehala, eta aldizkariaren zuzendaria izan zen. Arantzazu «pobreen unibertsitatea» zela zioen: berea. Eta unibertsitate horretako aldizkari pobrea, JAKIN.

Eta Arantzazun Bitoriano Gandiaga aurkitu zuen lehenbizikoz. *Elorri* liburua ari zen prestatzen, eta Joxeri eskatu zion laguntza. Gogoz lagundu zion hark idatzitako olerkietatik egokienak aukeratzen eta ordenatzen. Eta liburuaren atal bakoitzari bere iruzkin poetiko laburra erantsi zion, gainera.

Orduan hasi zen Joxe Arantzazu sakona ikusten eta ikasten, Gandiagarekin batera. Eta elkarlanean jarraitu zuten berrogei urtean, bakoitza bere bidetik, baina harreman bizian, Arantzazuk lotuta. Gandiagaren interprete bikainena dugu Joxe: *Hiru gizon bakarka*-ren ‘Epilogo’, *Adio*-ren ‘Hitzaurrea’, *Azken egunak Gandiagarekin* eta beste. Salvatore Mitxelena eta Antonio Arruti Arantzazuko poeten irakurle eta aurkezle bizkorren eta zorrotzena dugu Joxe. Poetekin kantatu eta kontatu digu Arantzazu; historialariekin birpentsatu digu haren historia, Euskal Herriaren historia politiko, sozial eta kulturalaren baitan: ‘Arantzazu bere gogoetaren ispiluan’ (*Arantzazu. Ikerlanak eta saiakerak*), ‘Arantzazuko kanta zahar zaharrenaz ohar historiko batzuk’ (*Arantzazuko balada edo kanta zaharrak*), ‘Arantzazu, gizartea eta kultura’ (*Arantzazuko Santutegia*).

Berrogei urteren buruan, 2000. urtean, Gandiaga hiltzorian, berriro aurrez aurre daude Joxe eta Bitoriano, elkarriketa aspergabea. *Azken egunak Gandiagarekin* du Joxek bere libururik existentzialena eta metafisikoena, aldi berean. Bien biografiak oso ezberdinak izan dira: «Bi historia diferenteegiak izan gara biok –ni neure historiatic mintzatuko naiz–», aitortu du (5). Baina Arantzazu berbera dute biek sakonean:

Arantzazu ikusteko eta sentitzeko modua gu guztioi aldatu digu Gandiagak urteotan. Arantzazuko erlijiositateari jite berri argitsu bat estetiko eta errealista eman dio, arras gizatiarra, telurikoa; paisaiari eta lekuari balio sinboliko berri bat, lurra eta gizakiaren fede betidanikoa bateratuz, historia baino harago eta honago zabalik eta, ber denboran, konkretu, laneko jende xumearen unibertso, dolmenetatik Ama Birjinaren elorrriraino dena bat. (14)

Biak daude Arantzazurekin identifikatuta, «biok Arantzazu izan gara, edo gara» (5). Eta hil aurreko egunetan galdetu ziotenean, «Joxe, zer da zuretzat Arantzazu?», «Arantzazu dena da...», bat-bateko erantzuna... Gogoeta metafisikoa dirudi ia. *Azken egunak Gandiagarekin* irakurtzeko abiapuntu egokia, beharbada.

Labirintoko ibilia da Joxeren liburua, labirintikoa bere osoan. 1970eko urteetako Euskal Herriko erlijio krisiaren ondoreaz dio:

Handik aurrera banatu egin dira ordura arte bidaide izan ginen askoren bideak. Denok ere birpentsatu beharra edukiko dugu gure historia, gure kultura, gure fedea, gure Jainkoa. Aurre egin beharra edukiko dugu Europako influentzia intelektual eta soziali. [...] bigarren nabigazio bati Jainkoaren bila denok ekin behar izan diogu, Gandiagak ez gutxiago, gure nondik norakoak berriro meditatuz. (92)

Bere labirintoko proba egin zuen Joxek, erdiguneko argiraino iristeko grinaz, «Jainkoaren bila», ateismoari «antzuegi» iritzita (92). Jainkorik ez dago, egon; baina bada Jainkoa; «Jainkoa ez da gauza bat: zentzu bat da» (137)... Jainkoa = Zentzua, gauzen zentzua –azken Zentzua?-. Bihurriegia gertatu zaio labirintoko bidea, «neuri ere estrainioa egiten zait idazten ari naizena. Zentzuaren kontu hau guztia zentrala da, baina neuk oraindik seguru asko ez daukat aski pentsatua» (143).

Pentsatzen, birpentsatzen, jarraitu zuen Joxek...